

## **DANTZAN BILAKA 2024-2025 PROGRAMAREN BATZORDE ARTISTIKOKO KIDE IZATEKO ERRELEBO DEIALDIA**

**NORI ZUZENDUA** Euskadiko dantzaren eta koreografia-sorkuntzaren alorreko profesionalentzat. Hautagaitzak gauzatzeko, honako hauek bidali beharko dira: curriculuma eta motibazio-gutuna. Beharrezkoa bada, elkarrizketa pertsonalak egingo dira.

**DEIALDIA** Deialdi honek, Dantzan Bilakaren 2024ko eta 2025eko edizioetarako koordinazio taldea txandakatzea du helburu. (ikusi beherago eskaera)

**AURREKARIAK** 2021eko edizioaz geroztik, Dantzan Bilakaren programa bi pertsonako batzorde artistiko batek eta ADDEren bulegoak osatutako taldeak koordinatzen du. Horiek arduratzen dira programa posible egiten duten lan guztiez. "Laguntza eta koordinazioko" batzorde hori programa egituratzen duten koordinazio eta diseinu lanez arduratzen da, bai eta programan garatutako sormen-prozesuen jarraipenaz ere. Batzorde horrek errotazio sistema bati jarraitzen dio, eta, horri esker, pertsona berriak pixkanaka sartzen dira, Dantzan Bilakaren koordinazioan aurretiko esperientzia duen talde bat bermatzen delarik.

2023ko edizioan, Maia Villot eta Ángela Millano izan dira batzorde artistikoko kideak.

Duela sei ediziotik hona, jardunaldiak lurralde bakar batean biltzen dira, eta, horrela, programa urtero EAEko hiru hiriburuetara zabaltzea planteatzen da. 2023an DB Bilboko Azkuna Zentroan burutzen ari da eta 2024ko hurrengo edizioa Gasteizeko Artium Museoa izango da.

Txanda-deialdi honen helburua batzorde artistikorako kide berri bat hautatzea da, Ángela Millanok eta ADDEren bulegoak osatzen duten eraketari gehituko zaiona.

#### **LANERAKO BALORATZEN DIREN EZAUGARRI OROKORRAK:**

- Sormen koreografikoaren arloan esperientzia egiaztatua.
- Proiektuak eta ideiak aztertzeke, hausnartzeko eta egituratzeko gaitasuna.
- Bizilekua Euskadin izatea. Aurrez aurreko eta online topaketetarako prestasuna.
- Egutegi pertsonalean ordutegi malgutasuna eta doaikuntza.
- Esperientzia proiektuak ekoizteko zereginetan.
- Taldeak koordinatzeko gaitasuna.
- Programaren komunikazio-gaitasuna (idatzizkoa eta ahozkoa) eta aurkezpen publikoa.
- Dantzaren sektoreak Euskadin gaur egun duen egoera ezagutzea.
- Euskal Herriko dantzaren testuinguruarekiko interesa, gogoeta, konpromisoa eta erantzukizuna.
- Euskararen ezagutza (ahoz eta idatziz) eta jarioa hizkuntzan.

#### **DANTZAN BILAKA BATZORDE ARTISTIKOAREN BARRUAN BETE BEHARREKO ARDURAK ETA ZEREGINAK:**

Dantzan Bilakaren eginkizunen garapenak eta betearazpenak batzordearen bi kideen eta ADDEko bulegoko 2 kideen artean banatuko dira, beti ere, Eusko Jaurlaritzarekin eta jardunaldiak jasoko duen espazioarekin elkarriketan.

Dantzan Bilaka programa diseinatu, koordinatu eta gauzatzeak lau lan-arlo biltzen ditu eta arlo horiei lotutako zereginak batzorde artistikoaren eta ADDEren bulegoaren artean banatzen dira:

##### **1. LAGUNTZA ARTISTIKOA/ MENTORING-ak**

Laguntza artistikoaren ezaugarri espezifikoak:

- Urtero beka jasotzen duten 7 proiektuen kontzeptuak, material koreografikoak, eszenaratzea, mugimendu-praktikak eta dramaturgia garatzen laguntzea.
- Jardunaldietan proiektua aurkezteko moduari buruzko gogoetan laguntzea.
- Proiektua webgunean eta eskuko programan islatzeko moduari buruzko gogoetan laguntzea.
- Proiektu artistikoaren berezitasunak jakinaraztea batzordeko gainerako kideei, koordinatzaile teknikoari eta aurkezpen-guneen arduradunari.

##### **2. ESPAZIOAK ETA TEKNIKA**

Ikus-entzunezko erregistro-materialaren, teknikaren eta aurkezpen-espazioen koordinazioa. Lan hori espazioaren arduradunarekin, teknikariaren arduradunarekin eta ikus-entzunezko dokumentazioaren arduradunarekin koordinatuta egingo da.

### 3. WEBGUNEA ETA KOMUNIKAZIOA

Dantza Bilakaren webgunea, argitalpena eta sare sozialak koordinatzea eta ikuskapena egitea ADDEren bulegoarekin lankidetzan estuan egingo da, bai eta, lan horiek egiten dituzten arduradunekin (sortzaileak, diseinatzaile grafikoa, itzultzailea...) Horrek eskatzen du edukiei erantzuteko eta lan horiek egiten dituzten faseak eta pertsonak koordinatzeko gaitasuna. Hauek dira zeregin nagusiak:

- **Eskuko programaren argitalpena koordinatzea:**
  - Eskuko programa sortzeko diseinatzaile grafikoa hautatzea.
  - Parte-hartzaileek argitaratzeko materialak ematearen jarraipena egitea.
  - Sarrerako testua idaztea.
  - Diseinua eta argitalpena koordinatzea.
  - Eskuko programak eta kartelak banatzeko zerrenda ikuskatu.
- **Web-orria gainbegiratzea eta eguneratzea:**
  - Argitaratzen diren eduki motak eta horien diseinua definitzea.
  - Epeak finkatzea eta parte-hartzaileei edukiak eskatzea.
  - Webguneko informazio orokorra eguneratuta dagoela gainbegiratzea.
- **Instagram eta Facebook:**
  - Epeak finkatzea eta parte-hartzaileei edukiak eskatzea.
  - Lan-asteen argazki-erregistroa.
- **Prentsaurrekoa eta programaren aurkezpena:**
  - Jardunaldien eta programaren dosierra eta prentsa-oharra idaztea.
  - Programa aurkezteko prentsaurrekoa prestatzea, bertaratzea eta aurkezpena egitea.
- **Egoitzetako eta aurkezpen-jardunaldietako ikus-entzunezko dokumentazioa koordinatzea.**

### 4. EKINTZA PARALELOAK

Gaur egun Dantzan Bilakaren hiru aldi artistikoen eta azken jardunaldien inguruan eratzen diren jarduera paraleloak diseinatzea, ekoiztea eta koordinatzea.

### 5. ITXIERAKO LANAK / AZKEN EBALUAKETA

Urteko ekintzei itxiera emateko behar diren eginkizunak. Honakoak izango dira:

- Programaren koordinaketaren barne ebaluaketa.
- Partaideekin ebaluaketa bilera edo galdeketa.
- Batzorde berriarentzako deialdiaren idazketa.
- Batzordeko kide berriren hautaketa prozesuan parte hartzea.

**DANTZAN BILAKA 2024-2025  
BATZORDE ARTISTIKOKO  
KIDE IZATEKO  
ERRELEBO DEIALDIA**



6. PROGRAMAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA HAUSNARTU.

Eginkizun honek, programaren etorkizuneko hobekuntzaren konpromisoan programaren edukiaren berrikuste lanak eta prozesu elementuen inplementazio zereginak jasotzen ditu.

Eginkizun hori, oinarritzko soldatatik kanpo ordainduko da.

7. BESTEAK. 2025 DANTZAN BILAKA PROGRAMAREN DEIALDIA:

- Deialdia idaztea.
- Deialdia argitaratzea.
- Dantzan Bilaka 2024 programako proiektuak hautatzea. 2023ko urrian egingo da, 2024ko urtarrilean batzorde artistikoko taldearen barruan kargua hartu aurretik. Lan hori oinarritzko soldatatik kanpo ordainduko da.
- Dantzan Bilaka 2025 programako proiektuen hautaketa.

**ESKAERA**

Konpromisoak 2 urte hartzen ditu, 2024ko eta 2025eko edizioak.

Edizio bakoitzeko lan-denboraldia, urtarriletik abendura bitartea izango da.

**BITARTEKO TENPORALAK**

Gutxienez hilean bi bilera. Bilera horiek batzorde artistikoko kidearekin, ADDEren bulegoarekin edo batzordearekin edo jardunaldiak jasotzen dituen espazioaren arduradunekin izan daitezke. Etengabeko erabilgarritasuna posta elektronikoko bidezko harremanean (mezuen erantzunak).

**EGOITZAKO ASTEETAN ETA 2023 PROGRAMAREN HASIERAKO AURKEZPENEAN AURREZ AURRE EGOTEKO BETEBEHARRA:**

Urtarrilaren 26an, ostirala, 2024ko programa aurkezteko eta hasteko bilera.

Otsailaren 26tik martxoaren 3ra, egoitza-astea Artium Museoa.

Ekainaren 3tik 09ra, egoitza-astea Azalan.

Irailaren 9tik 13ra, egoitza-astea Artium Museoa.

Urriak 11, 12, 13 Jardunaldiak Artium Museoa.

**SOLDATA** 7.900 euro + BEZ

(Faktura bidez, hiruhileko bakoitzaren amaieran.)

*Oharra: Dantzan bilaka 2024 eta 2025 programeko proiektuak hautatzeko lana eta 2024ko edizioko dieten, bidaien eta ostatuen gastuak ez daude jasota jaso beharreko soldatan, eta gehigarri bezala ordainduko da.*

**DANTZAN BILAKA 2024-2025  
BATZORDE ARTISTIKOKO  
KIDE IZATEKO  
ERRELEBO DEIALDIA**



**BIDALI BEHARREKO ESKAERA**

Honako helbidera bidali behar da: [info@addedantza.org](mailto:info@addedantza.org)

- CV (ibilbide artistikoa eta proiektuen kudeaketan eta koordinazioan izandako praktika aipatuz)
- Motibazio gutuna.
- 2024 egutegiaren erabilgarritasuna.

**EPEAK**

- Eskerak bidaltzeko: Ekainaren 1etik 30era.
- Hautaketa jakinaraztea Uztailaren 17ko asteen.